

## Hasiera

*Euskaldunon Egunkaria*, 1992-02-04: 2.

"Yainkoa bera ez dan oro irazana da", dio Olabideren *Itun zar eta berriak*. Oiloaren eta arraultzaren arteko lehentasunaren azterkeriak ez du etorkizunik, honek bai, hoberik asmatzen ez den bitartean. Eta mundua berak bezela, munduko denak badu hasiera bat gizaratean; hemen errazago aurkitzen ditu gizonak, ondo bilatuz gero behintzat. Egia da historiaz eta eskarmentuz hainbeste hasiera ezagutu dituen gizakiari askotan nahasten zaizkiola ordenak buruan, eta ahaztu ere bai, menturaz. Memoriak asko pisatzen bait du, eta buruan karga gehiegi jartzea ez da ona osasunarentzat. Askok joan da bere orduan baino lehen gauzak gogoan gorde dituelako eta gero etxean konfidantza osoan esan. Aitzitik, ordea, memoria galdu duenaren atxakiaz bizi dena ere ez da beti salbu, zeren eta, beste norbaitek gogorazten bait dizkio hemendik hara eta handik honerako zergatiak. Hara herenegun barberian aldizkari batetan Jose Pablo Güil Pijoan jeneralak (izena eta guzti apuntatu egin nuen) esaten duena: "Gaur egun zenbait lurralde maitagarritan espainiarra sentitzeko eta gazteleraz mintzatzeko zailtasunak" daudela, eta hau "guztion hizkuntzaren aurkako terrorismo kulturala" dela. Nik badut buruan euskaraganako terrorismoaren gomuta historikoa eta pertsonala, eta zein terrorismo den zaharragoa ikustera bagoaz, demostrazioak ere egingo nituzke berriz, dagoeneko eginak ditudan legez, eta honetan hasi dena zein den argituta geratuko litzateke. Hala, Mosesek bildutako "Yainkoa bera ez dan oro irazana da" irakurtzen duenak ulertuko du badela demostra genezakeenik, denek jakin dezaten, jeneralak ere bai, nondik nora gabiltzan eta nola.